

EZKERREKO SUBIRANISTEN KONPROMISOA

Ezker Abertzalea, Eusko Alkartasuna, Aralar eta Alternatibaren arteko Hego Euskal Herrirako Akordio Estrategikoa

SARRERA

Egungo egoera politiko, sozial eta ekonomikoa ikusita, Euskal Herriak bizi duen abagunea itxaropentsua bezain gordina da. Hori dela eta, indar ezberdinen arteko metaketa eginez, Akordio Estrategiko Nazionala gauzatzea erabaki dugu. EZKER ABERTZALEAK, EUSKO ALKARTASUNAK, ALTERNATIBAK eta ARALARek, desberdintzen gaituena albo batera utziz eta batzen gaituena lehenetsiz, aniztasuna oinarri eta xede izanda, indar biketaren aldeko apustu sendo eta estrategikoa egin dugu. Euskal Herriarekiko, euskal herritarrekiko erantzukizunak halaxe jokatzeko eskatu baitugu.

Akordio Nazional Estrategiko hau esku artean ditugun erronkei erantzuteko asmoz sortu da. Gure Herriaren nazio eraikuntza eta jendarte eraldaketa bultzatzeko gure ahaleginak batzea erabaki dugu, Euskal Herri subirano eta solidarioa helburu. Bakean, askatasunean eta justizia sozialean oinarritutako Euskal Herria eraiki nahi dugun honetan, eraikuntza lan eskerga hori herritarrekiko eta gainerako eragile sozial, sindikal eta politikokiko aniztasunetik elkarlanean egiteko gogoia adierazi nahi dugu. Horretarako eskua beti luzatuta izango diegu. Nazio eta jendarte askapenaren bidean, pertsona guztien eskubide indibidual eta kolektiboak errespetatu dituen jendarte demokratiko eta parte hartzailea guztion artean eraiki behar baitugu. Euskal Herriko ezkertiarren, aurrerakoen, independentisten eta soberanisten arteko Akordio hau behar-beharrezkoa da, euskal herritarrok Herri gisa gure etorkizuna noizbait erabaki dezagun,

bakearen eta normalizazio politikoaren bideak urratuz. Halaber, euskal gatazka politikoaren ondorio guztiak kitzatzea ere lehentasun dugu.

Gauzak horrela, Akordio hau, Euskal Herriak bizi duen abagune historiko honen aurrean, bai lehentasun politikoei bai lehentasun sozialei garrantzi bera emanaz erantzun behar zaiela pentsatzen dugunon artean egina dugu.

Etorkizunaren alde, askatasunaren, justizia sozialaren eta burujabetzaren bidean, horra gure ekarpen xumea.

EGOERA OROKORRA

Gaur egun Euskal Herrian bizi dugun egoera politiko, ekonomiko eta sozialaren aurrean, berebiziko garrantzia du nazio mailako erantzun ezkertiar eta soberanista artikulatzen jarraitzeak. Nazioarteko testuinguruan oso egoera berezia da, korapilatsua baina itxaropentsua. Euskal Herriari ere eragiten dion krisi global sistemikoaren eta dagoeneko ikusten eta pairatzen ari garen krisiaren ondorio mingarrien aurrean, ezkerreko soberanista eta independentisten arteko subjektu berri bat sortu behar da, burujabetzaren aldarrikapen historikoa artikulatu ahal izateko, subiranotasun nazionala eta eraldaketa soziala uztartuko dituen proiektu batean.

Gaur egungo egoerak hiru ezaugarri nagusi ditu, besteak beste: Euskal Herriaren ukazioa eta gure herriarentzat bakea eta normalizazio

demokratikoa ekarri behar dituen prozesuaren aurrean Espainiako eta Frantziako Estatuak erabiltzen duten blokeo estrategia, krisi sistemikoa eragin duten egitura ekonomiko-finantzario eta politikoa, eta marko estatutario-konstituzionalaren agorpena.

Espainiako eta Frantziako Estatuetan gobernatzen dutenek uko egiten diote gatazka konpontzeko beharrezkoak diren urratsak egiteari, bazterketarik gabeko elkarrizketa bateratzailea abiatzeari, gure herriarentzat bakea eta aterabide demokratikoa ekarriko dituen prozesu bat finkatzeari eta, batez ere, Euskal Herriari izateko eskubidea eta libre eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea ukatzen dizkiote. Gainera, gure kulturaren eta euskararen biziraupena arrisku larrian jartzen duten politikak ezartzen dituzte.

Halaber, ikusten ari garen bezala, boterean daudenek beren dinamika eroari eusten diote, herritarrentzat eta gure herriarentzat ondorio larriak izango dituen aurreranzko ihesaldi burugabe batean.

Hala, demokrazia merkatuen diktaduraren menpe jartzen laguntzen dutenek demokraziaren babesle nagusi gisa agertu nahi dute. Ildo horretan, finantzen arloko krisiaren arrazoiak diagnostikatzeko orduan, arazoa merkatua - desarautua, kontrolik gabea eta desorekatua- dela esaten dute, baina irtenbide gisa merkatuekiko menpekotasuna areagotzea proposatzen digute. Arazoaren arrazoi nagusietako bat irabazi azkarak lortu nahi izatea da, eta, hala ere, boterearen helburu bakarra etekinak sortzeko espazio berriak bilatzea da, berdintasun sozialaren gaitetik eta dagoeneko muga fisiko guztiak gainditzen ari den hazkunde-ereduari irmotasunez aurre egin gabe. Horretarako, etekinak sortzeko tresna huts gisa erabiltzen dituzte bankuak, haien dimentsio publikoari eta funtzio sozialari uko eginez.

Testuinguru horretan, emakumeek pairatzen

duten eskubide-urraketa nabarmendu nahi dugu. Oraindik ere gizonezkoekiko desberdintasuna nabaria da arlo guztietan, baina egoera hori gaitzuta dagoen errealitate gisa edo garrantzi gutxiko arazo formal gisa aztertzen da. Ongizateaz eta segurtasunaz hitz egiten da, baina, aldi berean, langile-klasearen eskubide historikoa indargabetzen dituzten lan-erreformak eta pentsioen erreformak ezartzen dira. Oso ondo dakite lan-baldintzek eta gastu sozial publikoak ez dutela krisi sistemikoan inolako eraginik izan, baina, hala ere, osasuna, hezkuntza eta bestelako zerbitzu publiko funtsezkoak murrizten eta prekarizatzen dituzte.

Landa-eremuaren eta hiriaren arteko oreka aldezten da, baina inposatzen diguten lurralde-ereduak hiri handiak lehenetsi eta barrualdeko eskualdeak bigarren mailan uzten ditu. Horrek, beste ondorio batzuen artean, desagertzerak kondenatzen ditu Euskal Herriko nekazaritza eta abeltzaintza, nekazaritza industrialarekin lehia-tu ezinik. Globalizazioaz eta mugak gainditzeaz hitz egiten da, baina migratzaileak kriminalizatu eta herritartasun osoa ukatzen zaie.

Laburbildurik, garapen iraunkorraren aterki anbiguoaz estaltzen dute beren diskurtso osoa, baina beraien helburua natur baliabideak xahutu eta eskubide sozialak murrizten dituen hazkunde-ereduari eustea da.

Horren ondorioz, euskal herritarrak zuzenean jasaten ari dira prekaritatea, langabezia, eskubideen murrizketa, emakumeen kontrako indarkeria estrukturala, ingurumenaren suntsipena, arrazakeria, nekazaritzaren desagertzea eta, Euskal Herriarentzat bakea eta aterabide demokratikoa ekarri behar dituen prozesua finkatzeari dagokionez, blokeo hutsa edo ekimenik eza.

Lehen esan dugun bezala, horri guztiari Espainiako eta Frantziako Estatuaren gabezia demokratikoa eta herrien autodeterminazio-eskubidearen ukapen erabatekoa gehitu behar dizkiogu. Gure kasuan, Euskal Herria nazio bat

dela eta erabakitzeko eskubidea duela onartu behar dute, horietatik baitira autodeterminazio- eskubidearen oinarriak.

Horri dagokionez, Gernikako Autonomia Estatutua eta Nafarroako Foru Hobekuntza zatiketa administratibo zentzugabea betikotzen duten, muga estuak ezartzen dituzten eta subiranotasun politikoa Espainiako Estatuko botereen esku uzten duten tresna juridikoak dira. Hala-ber, frantziar zentralismoaren politika asimilatzailerik Ipar Euskal Herriaren ukazioa dakarte.

Errealitate juridiko horrekin batera, arau antidemokratikoak eta salbuespenezko egiturak pairatzen ditugu (indarrean dagoen espetxe-politika, Alderdien Legea, Auzitegi Nazionala...) eta aldarrikapen nazional guztiak kriminalizatuta daude. Euskal Herriari nazio gisa dagozkion eskubideak ukatu eta euskal herritarren eskubide zibil eta politikoa oinarritzatuz urratzen dituen estrategia politikoa integrala da.

Espainiako Estatuko gobernuak lege antidemokratikoak eta erabaki politikoa nahiz judizialak erabiltzen ari da gehiengo politikoa eta soziala aurrean blokeoari eusteko. Gehiengo horiek Euskal Herriaren nazio izaera onartzeko eta herriaren borondate demokratikoa errespetatzeko eskatzen dute, eta argi erakusten dute gaur egungo markoak zaharkituta eta agortuta daudela.

Gaur egungo egoera orokorraren azterketa honetan ikusi dugun bezala, euskal herritarren eskubide indibidual eta kolektiboak etengabe urratuak dira eta boterea ez da bere hazkundera eta jendarte ereduak eragin dituen arazoak konpontzeko gai. Egoera horren aurrean, ezkerreko eremu soberanistak abian jarri behar du pertsona eta herri guztien eskubide guztien defentsan oinarritutako agenda politikoa bat.

Hain zuzen ere, egoera politikoa berriak agertoki ilusionagarria irekitzen du deskribatu ditugun hiru arlo horietan. Aukera paregabea dago des-

berdinak izan arren urraketan eta inposaketan oinarritutako sistema honetako errealitateen inguruan ikuspuntu zabal komunak dituzten ezkerreko indarrek herri-sektoreak aldaketa sakon baten alde artikulatuko dituen proposamen politikoa bat formulatzeko.

Horixe da milaka euskal herritarren eskaera eta itzaropena: Euskal Herriaren ezker indartsu bat egotea, eremu guztietan eskuinari aurre egingo diona eta gure herriaren eskubide indibidual eta kolektibo guztiak era integralean defendatuko dituen. Ezin dugu aukera hori alferrik galdu. Eragile politikoa eta sozial guztion ardura eta betebeharra da gure herriaren aldarri horri erantzutea, eta lehen azaldu dugun egoeraren aurrean are kemen handiagoz ekin behar diogu zeregin horri.

Illo horretan, Akordio hau izenpetu duten indar politikoetan antolaturik gauden ezkerreko independentista eta soberanistek gure ekarpena egin nahi dugu, gure indarrak aldaketarako agenda politikoa erradikal baten inguruan artikulatzen dituen marko estrategikoa bat planteatuz. Gure arteko Akordioa herriaren eskari horri erantzuteko asmoz jaiotzen da, abagune politikoa berriak sortutako ilusio une honetan hain zuzen ere.

Funtsean, honako hauek dira ilusio hori piztu duten faktoreak: Gernikako Akordioak egingo dako lana, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak akordio horri emandako atxikimendua, Aieteko Nazioarteko Adierazpena eta 2011ko urriaren 20an ETAK bere jardura armatuaren behin-betiko amaiera iragarri izana. Beraz, hau ez da inola ere epe laburrari begira eginiko akordio puntuala. Epe luzerako akordioa da, aldaketarako eta eraldaketarako subjektu politikoa eta soziala eraikitzeko abiapuntua izan nahi du, anitza baina artikulatua, ezinbesteko eraldaketan bidean aurrera egi- tea ahalbidetuko duena.

Horrenbestez, azken urte eta erdi honetan

abiatutako elkarlanaren bidean sakontzen jarraitu behar dugu. Euskal jendartearen parte handi batek bide hori txalotu du, ilusio handiz hartu du eta hainbat une eta ekimenetan babes argia erakutsi dio. Gure esku dago bide hori indartzea, Euskal Herria posiblea dela eta gure herriko gainerako eragile politikoek eskaintzen digutenaz bestelako eredu sozioekonomiko bat behar-beharrezkoa dela uste duten pertsona guztien parte hartzearekin eta guztion arteko koordinazioaren bidez.

Gaur egungo egoeran benetako aukera dago gatazka politikoa behin betiko konpontzeko, herritarrek erabakitako eta babestutako Euskal Herri euskalduna lortzeko eta eredu ekonomiko eta sozial berri bat eraikitzeko.

Anbizio handiko helburu politiko hori erdies-teko, Akordio estrategiko hau izenpetu dugu. Akordioa printzipio batzuen inguruan definitzen da eta, printzipio horietan oinarrituta, gaur egungo sistema gaingintzeko agenda politikoa jasotzen du. Akordioa izenpetu dugun indar politiko guztiok agenda hori betetzeko konpromisoa hartzen dugu.

AKORDIOAREN EREMUA

Euskal Herria berezko izaera instituzional zein subiranoa dagokion entitate historiko, geografiko, kultural eta politikoa duen errealitate nazionala da. Subjektu nazional gisako erreferentzia horretatik abiatuz, Akordio hau Hego Euskal Herria osatzen duten lau herrialdeetara mugatzen da.

Ilido horretan, Akordioa izenpetu dugun indar politikook kontuan hartzen ditugu Hego Euskal Herriko esparru administratibo-politikoetako errealitate eta abiadura desberdinak, Nafarroari dagokion berezko nortasun politikoa aitortuz.

AKORDIO POLITIKOAREN 10 ARDATZ NAGUSIAK

Akordioaren baitan, berau ezaugarritzen eta identifikatzen duten printzipio multzoa jasotzen da. Printzipio hauek Akordioa izenpetu dugun indar politikoontzat erreferentziak eta gida modukoak dira gure arteko elkarlana bideratzeko konpromisoak hartzerakoan. Honako hauek dira printzipioak:

1 Izaera estrategikoa. Akordioa gaur egungo egoeratik sortzen den baina epe luzerako egiten den proposamen politikoa da. Ez da inola ere epe laburrari begira eginiko akordio puntuala. Epe luzerako akordioa da, aldaketarako subjektu politiko eta soziala eraikitzeko abiapuntua izan nahi du, anitza baina artikulatua, jarrera ezker-tiar eta aurrerakoietatik ezinbesteko eraldaketen bidean aurrera egitea ahalbidetuko duena. Eta proposamen hau egiten dugu Euskal Herriarentzat ezinbestekoak diren eskubide indibidual, sozial zein kolektiboak bilduko dituen agenda politikoa zuzentzeko gai den indar politiko bakarra euskal ezker sendoa dela konbentziturik.

2 Elkartzen gaituenari lehentasuna eman. Krisi sistemikoaren eta eskubide indibidual zein kolektiboen urraketa larrien aurrean, inoiz baino beharrezkoagoa iruditzen zaigu indarrak biltzea aldaketa sakonak eragiteko eta alternatibak eskaintzeko. Hala, indar politiko bakoitzak bere izaerari eta helburu politikoei eusten die, baina guztiok elkarlanean arituko gara Akordio honetan adostutako eta zehaztutako lehentasunen inguruan.

3 Euskal Herriaren burujabetzaren defentsa. Eskubide indibidual eta kolektiboen defentsak berez jaso behar du herrien Autodeterminazioaren eta emantzipazioaren defentsa. Euskal Herriari nazio gisa dagozkion eskubideak, bere etorkizuna erabakitzeko ahalmena eta bere hizkuntzaren, kulturaren eta antolabidearen defentsa dira Akordio Politikoaren bizkarrezurra.

4 Aldaketa sozialaren zerbitzurako burujabetza. Euskal herritarren eskubideak bermatzeko inolako gaitasunik ez duten esparru instituzionalen laguntzarekin eta babesarekin botere-gune ekonomikoek inposatzen duten eredu ekonomiko eta sozial bidegabea gaindituko duen aldaketa estrukturala egiteko konpromisoa hartzen du Akordio honek. Akordioa izenpetu dugun indar politikoon ustez, eraikuntza nazionala ezinezkoa da eredu sozioekonomikoaren aldaketa estrukturalik gabe, eta aldaketa sozioekonomikoa ezinezkoa da demokratizazio politiko sakonik gabe eta euskal instituzio burujaberik gabe.

5 Elkartasuna. Krisia eragin ez dutenek ez dute ordaindu beharrik. Langabeekiko elkartasuna eta enplegua sortzeko ahalegina ditugu xede nagusi.

6 Aniztasuna. Aniztasunean oinarritutako berdintasunaren aldeko apustua egiten dugu, pertsona orok eskubide berberak dituelako. Horregatik, pertsona askez osatutako jendartearen alde jardungo dugu. Halaber, berdintasunean, errespetuan eta elkartasunean oinarritutako jendarte nahi dugu, non pertsona guztiek eskubide zibil, politiko eta sozialak aitortuak eta errespetatuak izango dituzten, generoa, etnia, sinesmenak, sexu joera, jatorria, kultura eta hizkuntza edozein izanda ere.

7 Ekintza politiko eta sozialerako mugimendu zabalak sustatzea. Gaur egungo dinamikak gaindituz, Akordioak ekintza politiko eta sozialerako eremu zabalak sortzen lagundu nahi du, antolakunde bakoitzaren autonomia erabat errespetatuz eta aniztasuna onartuz Euskal Herriko aldaketa politiko eta sozialaren alde lan egingo duten mugimenduak sustatuko ditu.

8 Herrigintza. Jendarte moderno garatuetan nagusitu den indibidualismoa gaindituz, izaera kolektiboa biltzen duen eta gure herriaren nortasunaren baitan jasotzen den herrigintza zutabe eta helburu izango dugu.

Aniztasunetik, baina herriarekin, herritarrekin proiektuak partekatuz eta bideratuz, jarrerera eraikitzailea bidelagun izanda. Horrela bakarrik eraiki daitekeelako jendarte justu, solidario eta oparoa.

9 Proposamen askatzaile guztiak estrategia politikoetan txertatzea. Akordio hau izenpetu dugun indar politikook garrantzi berbera emango diegu Akordioak jasotzen duen aldaketa politiko eta soziala erdiesteko asmoz Euskal Herriko herritarrek zein mugimendu sozialek bultzatutako proposamen askatzaile guztiei. Proposamen guztien arteko elkarreraginetik, guztien zehar lerrotzetik eta subjektu politiko nahiz erakunde sindikal eta sozial ezberdinen artikulaziotik soilik lor daiteke aldaketa orekatu eta sendoa.

10 Bake bideen eta bide politikoen aldeko apustua. Akordio hau izenpetu dugun erakundeok geure helburuak erdiesteko bake bideak eta bide politikoak soilik erabiltzeko konpromisoa hartzen dugu. Lan instituzionaletik desobedientzia zibileraino doan eremu zabalean garatuko ditugu bide horiek, bortxazko estrategiak eta jarduerak baztertuz eta giza eskubide guztien urraketei aurre eginez.

JARDUN POLITIKORAKO KONPROMISOAK

Aipatu printzipio orokor horietan oinarriturik, Akordio honek esku hartze politikorako bederatzia esparru finkatzen ditu, ondorengo urteetan esparru hauetan garatu beharreko lana bateratua izan dadin. Hauek dira lan bateratua garatzeko ekintza politikorako esparruak:

A.- Euskal Herriaren Autodeterminazioa eta emantzipazioa

Puntu honi dagokionez, honela zehazten da gure esku hartze politikoa:

- Euskal Herria nazioa da. Arrazoi historiko, kultural, linguistiko eta politikoengatik gure errealitate nazional ezberdindua aldarrikatzen dugu. Beste herri eta kulturekiko errespetutik abiatuz, ikuspuntu unibertsal bat izanik, Euskal Herriaren izatearen eskubidea babesten dugun giza eskubidea dela aldarrikatzen dugu, nazioarteko komunitatea bere dimentsio guztietan osatuko duena.

Naziotasuna oinarritzko eskubidea da. Ikuspuntu horretatik abiatuz, euskal herritar guztiek beren naziotasunaren jabetzatik eratoritzen diren ariketa guztiak bideratzeko gaitasuna izan behar dute inolako bazterketa motarik jasan gabe. Naziotasunaren aitortzatik eratorritako eskubideak bermatzeko politika aktiboak bideratuko dira, besteak beste, EHNAren balio juridikoa dakarrena edota euskal kirol selekzioen zein nazio ikurren aitortza dakartenak.

- **Euskal Herriak askatasunez erabaki behar du bere etorkizuna.** Bere historia luzean hainbat eta hainbat gertakari jasan behar izan dituen Euskal Herriak, XXI. mendearen hasiera honetan bere etorkizun politikoa, ekonomikoa, kulturala zein soziala askatasunez erabakitzeko eskubidea egikaritzeko bitartekoak eskuratu eta erabili behar ditu. Askatasunez eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea edozein herriri dagokion bizitzarako eskubidea da.

- **Guztionez izango den Euskal Herria guztion artean eraiki beharra dago.** Egiten dugun euskal nazioaren aldarrikapena ez da bazterketaren ikuspegitik abiatuz egiten, aitzitik, integrazio eta elkartasuna ditu oinarrian. Euskal nazioa Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugun guztion artean eraiki behar dugun esparrutzat jotzen dugu, inor baztertu gabe, guztionez izango den esparru politikoa, kultural eta instituzional gisara ulertzen dugu euskal nazioa.

- **Euskal Herriak tresna politiko eta ekono-**

miko guztiak behar ditu. Nahi dugun eredu juridiko politikoa erabakitzeko eskubidea behar dugu, bitarteko politiko eta ekonomiko guztiak herriaren borondatean oinarrituriko instituzioen zerbitzuan egon daitezen. Soberania politiko eta ekonomiko hori izango da eredu ekonomiko, ekologiko eta sozial berriaren zerbitzuan egongo den tresna, aberastasunaren birbanaketa zuzena bideratzeko eta bazterketa soziala ekiditeko, beti ere langileriak osatzen duen gehiengo soziala erreferentetzat hartuz eta jendartearen ezkerreko eraldaketa aurrerakoia bideratuz.

- **Erabakitze eskubidearen eta lurraldetasunaren defentsa oinarri demokratikoen eta erreialismo politikoen parametroak oinarri eta pluraltasuna errespetatuz egiten dugu.** Egungo egoera abiapuntu hartuta, esparru politikoa-administratiboetako –Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta Ipar Euskal Herriko– indar harreman desberdinen arabera erritmo eta abiadura desberdinak kontuan hartzen eta errespetatzen ditugu.

- **Euskal Herria Europan.** Herrien Europaren aldeko hautua egiten dugu. Herrietan eta pertsonetan oinarrituko den Europa demokratiko, sozial eta solidarioaren alde gaude. Herrien erabakitze eskubidea aitortzen duen Europa eraiki nahi dugu. Bere baitan biltzen den hizkuntza eta kultur aniztasuna errespetatuko eta bermatuko duen Europa nahi dugu. Helburu horiek partekatzen dituzten Europa osoko indar soberanista eta ezkertiarrekiko harremanak eta elkarlana sustatzeko prestutasuna dugu.

B.- Bake prozesua eta konponbide demokratikoak

Gernikako Akordioaren testuak jasotzen duen bezalaxe, bortxakeriarik gabeko egoera bermatzen duen eszenatokia indartzea eta oinarritzko eskubide demokratikoen berrezarpena dira gatazka politikoen irtenbidea ziurtatzeko benetako bi-

tartekoak. Horixe da Akordio hau izenpetu dugun indar politikoen lehentasuna eta Akordio horrekiko gure konpromisoa eta babesa birbaieztatzen dugu, gure ekinbidearen lehentasunezko erreferentzia modura onartuz, eta irtenbide demokratikoak erdiesteko modu gisa.

Testuinguru honetan Aieteko Bake Konferentzian jakinarazitako Adierazpena gatazka konponetzeko ibilbide-orri gisa hartzen dugu. Halaber, Adierazpen horretatik 1. puntua bakarrik –ETA erakundeak bere jarduera armatua behin betiko amaitzea erabaki izana– beteta dagoela kontuan hartzen dugu. Ondorioz, dagoeneko Euskal Herriko agertoki politikoan indarkeria espresio bakarra desagertu da. Espainiako nahiz Frantziako Estatuak gainontzeko indarkeria espresio guztiak desagerraraztea gatazkaren konponbidea ekarriko duen elkarrizketa politikoa abian jartzea bezain ezinbestekoa da

Zabaltzen ari garen fase politiko itxaropentsu honetan, euskal jendartea da euskal herritar guztion eskubide pertsonal zein kolektiboen aitortzan oinarritutako bake eta normalizazio prozesurako eszenatokiak aurrera egin dezan bermatzaile eta subjektu bakarra.

C.- Demokrazia zuzena, parte hartzailea eta herri boterea

Gehiengo sozial handien kalitatezko esku hartze aktiboan oinarritzen den proposamen politikoa babesten dugu. Gehiengo zabal horrek bere ereduak eta lehentasunak arlo politikoan, ekonomikoan, kulturalean eta sozialean zehazteko eta garatzeko gai denean soilik hitz egin genezake herri soberaniak zuzentzen duen Euskal Herri demokratikoaz. Baieztapen horrek honako betekizuna dakarkigu Euskal Herrira:

- Erabaki estrategikoetan demokrazia zuzena indartzea. Horretarako erreferendumak eta herri kontsultak sustatu eta garatu behar dira.

- Parte hartze soziala indartzen duten politikak indartzea, demokrazia parte hartzailea areagotuz. Horretarako kontuan izango da emakumezkoek gizonezkoekiko duten egoera ez simetrikoa, eta horrela benetako berdintasun erreala bermatuko da.

- Eredu berri bat lantzea, ordezkatzen gaituzten pertsonak herritarren gehiengoaren benetako ordezkariek izan daitezten.

- Parte hartzeari dagozkion berezko instituzioak bultzatzea, hala nola herri batzarrak eta auzolana.

D.- Eredu ekonomiko bidezkoa eta ekologikoa

Ekonomia herritarren zerbitzuan jarritako tresna bihurtzen duten alternatiba bideragarriak martxan jartzea da Akordio honen ardatzetako bat. Pertsonen eskubideen aurka kapitalaren hegemonia eta korporazio nagusien interes ekonomiko-finantzarioak mantentzeko sortu dituzten neurri ekonomiko zein sozialen aurkako erantzun irmoak, proposamen argiak eta egingarriak bildu behar ditu bere baitan. Proposamen horiek aberastasunaren banaketa justura eraman behar gaituzte, hori baita beste ordena ekonomiko baterako ezinbestekoak diren aldaketa estrukturaleri hasiera emateko bidea.

Herritar guztien ongizatea nahi dugu eta, horrexegatik hain zuzen, gure lana bazterketa soziala areagotzen eta berdintasuna zapuzten duten egoeren aurkakoa izango da eta, aldiz, bermatu eta babestuak izan behar diren behar sozialen oinarrian dauden eskubideen eta ingurumenaren defentsaren aldekoa.

Argi ikusten dugu, edozein delarik ere, nazio eraikuntzarako prozesuak ezin dituela gerorako utzi Euskal Herriak gaur pairatzen duen eredu sozioekonomikoaren eraldaketa estrukturalak.

Horrexegatik, euskal markoa bilduko duen proposamena egiten dugu, bide horretan gehien-goaren eskubideak eta beharrak ase ditzan. Hau proposatzen dugu:

- **Sektore estrategikoen kontrol publikoa zein soziala indartzea.** Bide horretan, sistema finantzario publiko baten sorreraren aldekoak gara, Euskal Kutxa Publikoa, eta ekonomian traktore diren sektoreetan parte hartze publikoa handitzearen aldekoak, Euskal Esparru Sozioekonomikoari bideragarritasuna emanez. Beharrezkoa da, sistema erregularizatuz eta sektore publikoaren esku hartzearen bidez, nazioarteko kontrol judizialak izango dituzten alternatibak formulatzea.

- **Politika fiskala eta soziala.** Aberastasunaren banaketa sarreraren (fiskalitatea) eta gastuen (politika soziala) oreka bideratzen duen politika aurrerakoian oinarritzen da. Modu horretan, fiskalitate mailakatu aldarrikatzen dugu, iruzur fiskalaren aurkako benetako borroka eraginkorra, eta, era berean, kalitatezko zaintze zerbitzu publikoak, osasuna, hezkuntza eta etxebizitza zerbitzuen unibertsaltasuna bermatzen duen gastu soziala.

- **Osasun sistema.** Populazio osoarentzako kalitatezko osasun zerbitzu unibertsal eta doakoaren aldeko apustua egiten dugu. Etekin edota emaitza ekonomikoen gaintik giza harremanen duintasuna jarriko duen osasun sistema nahi dugu.

- **Zaintze zerbitzu publikoak.** Egun ematen ari den privatizazioaren aldeko dinamiken ordez, kalitatezko zaintze zerbitzu publikoak indartzearen aldekoak gara, privatizazioak erosteko ahalmen handia duten jendarte sektoreen esku soilik uzten baititu aipatu zerbitzuak.

- **Lan Harremanetarako Euskal Esparrua eta babes soziala.** Enplegu politika eta babes so-

ziala soberanoak bermatzeko ezinbestekoak diren eskumen juridikoak euskal instituzioen zein eragile ekonomiko eta sozialen esku jarriko dituen LHEE aldarrikatzen dugu. Honek guztiak, besteak beste, sistema publikoko pentsioak bermatzeko aukera emango digu.

- **Lan eskubideen babesa.** Lanik izan ala ez, langileen eskubideen aldeko apustu argia egiten dugu eta, horrexegatik, lanaren banaketaren aldekoak gara. Bide beretik, lanaren behin-behinekotasunaren aurkakoak gara, erretiratze urteen aurreratzearen aldekoak eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldata handitzea aldarrikatzen dugu. Bide beretik, familiaren bizitza aktiboa, pertsonala zein soziala, garatzeko aukera ematen duten neurri eraginkorrak bultzatzearen aldekoak gara.

- **Elikagai soberania lagundu.** Elikagai soberania indartzeko politika aktiboak bultzatzea da gure nahia, egun indarrean dagoen nekazaritza industria ordezkatuz: ekologian oinarrituriko ustiaketa babestu, baserritarren ekonomia indartu, erosle eta saltzaileen arteko harreman zuzena bermatzen duten tokiko zein eskualdeko merkatuak zein zerbitzuak eta zirkuituak areagotu. Natur ondasunen kudeaketa planifikatua, kolektiboa eta soziala bideratu, hala nola urarena, lurrena, haziena... eta transgenikoen erabileraren aurkakoa.

- **Ekonomia ekologizatu.** Energia aurrezteari eta iturri ekologiko berriztagarrien erabilerari lehentasuna eman, beti ere energiaren sistema publikoan oinarrituz. Zentral termikoak zein nuklearrak desegin eta ziklo konbinatuko zentralen eraikuntzarekin amaitu. Eredu energetiko berri baterantz abiatzeko bide bakarra ez da energia iturri berriztagarriak indartzea, baizik eta, batez ere, kontsumo mailak gutxitzea eta, nola ez, sektore energetikoa etekin pribatuetatik urrundu. Errepide nagusi berrien eraikuntzaren aurkakoak gara eta garraio publikoaren garape-

naren alde jotzea proposatzen dugu, errepide nagusien eta eskualdekoen arteko osagarritasuna indartuz. Merkantzia eta bidaiarien garraiorako trenbidea indartzearen aldekoak gara. Bi hitzetan esanda, garraio mota ezberdinen arteko uztartzearen eta mota ezberdinetako garraioaren osagarritasunaren aldekoak gara.

- **Ekonomia soziala eta solidarioa babestu.**– Esku-hartze aktiboa, elkartasuna, egokitasuna, inklusioa eta feminismoa bultzatzen dituen eredu ekonomikoa indartu nahi dugu, beti ere pertsona guztien eskubideak bermatzeko helburuarekin soilik.

- **Diru publikoaren kudeaketa gardena eta optimizatua.**– Instituzioen kontrola bermatzeko eta diru publikoaren xahuketa ekiditeko asmoz, gardentasuna bermatuz, gaur egun dauden elkarte publikoen sinplifikazioa eta haien bikoizketa amaitzea proposatzen dugu.

- **Eredu produktiboa: Euskal Herriko ehun produktiboan inbertitzea proposatzen dugu.** Kalitatezko enplegua eta aberastasuna sortzeko eta datozen belaunaldiei etorkizun duina bermatzeko, zera proposatzen dugu, batetik, ondasun eta zerbitzuen produkzioan eta euskal produkzio-sarearen garapen eta eraldaketan inbertitzea, eta, bestetik, Euskal Herriko lurraldeen arteko sinergiak bilatzea, sektore publikoa apustu horren ardatz bihurtuta. Halaber, berrikuntza, dibertsifikazioa eta sektore arteko eta ingurumeneko oreka sustatu nahi ditugu, eta gure ekonomiarentzat estrategikoak diren sektoreak babestu.

E.- Euskalduntzea

Euskara euskal herritarren nazio hizkuntza da eta, beraz, bere identitatearen ezaugarri nagusienetariko bat. Euskara gure herriko kulturaren funtsezko osagarria da, eta kultura unibertsalari euskaldunok egiten diogun ekarpena, kohesio-

rako eta integrazioarako tresna izateaz gain. Hori guztia dela eta, ezinbestekotzat jotzen dugu Euskal Herri osoan euskararen normalizazioa eskuratzeko estrategia zehaztea eta adostea, beti ere XXI. mendeko euskal jendartearen izaera kultur anitza errespetatuko duen herritar eleanitzez osaturiko Euskal Herria sortzeko helburuarekin.

Normalizazio prozesuak, azken hamarkadetan hezkuntza sistematik egin den funtsezko ekarpenaz gain, jendarteko esparru ezberdinetan euskararen ezagutza eta erabilera bermatzeko dituzten bestelako neurriak ere behar ditu, beti ere berezkoa dugun euskal kultur ereduaren aldeko dinamikan uztarturik. Era berean, euskarak etorkinak diren pertsonen integrazioarako tresna izan behar duela pentsatzen dugu.

Bide horretan, ezinbestekotzat jotzen dugu Euskal Herria osatzen duten zazpi herrialdeetan euskararen ofizialtasuna eskuratzeko, gaztelania euskararekin batera koofiziala izango litzatekeelarik Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan eta, frantsesa euskararekin batera koofiziala Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeetan.

F.- Feminismoa

Patriarkatuaren aurkako borroka Akordio hau izenpetu dugun indar politikoen funtsezko elementua da, berez zapalkuntza sistema zaharrenetarikoa izateaz gain, munduko biztanleriaren erdiari bere buruaren jabe izateko aukera ukatzen baitio, menpeko egoerara kondentuz. Sistema patriarkalak indarrean dirau gure jendartean eta beste zapalketarako sistemekin uztartuz, dominazio sistema indartu baino ez du egiten. Horrexegatik pentsatzen dugu beren garapen osoa bermatzeko bitartekoak bermatuz soilik, eta patriarkatua gaindituz, aurrera egin dezakegula benetako jendarte justu, egoki eta demokratikorantzko bidean.

Zentzu horretan, honako konpromisoa hartzen dugu:

- **Jendartea eraldatzeko ezinbestekoak diren erantzun politiko zehatzak eta eredu sozialak eskaintzen dituen feminismoarekin bat egiten dugu.**

- **Emakumeen bortxakeriaren aurkako borroka.**- Indarkeria matxistak emakumezkoak hiltzen ditu emakumezkoak izateagatik soilik. Baina indarkeria mota hau izeberg handiago baten gain-tontorra baino ez da. Emakumearen aurkako indarkeriak mila aurpegi ditu. Emakume orok jasaten du indarkeria motaren bat bere bizitzan zehar: indarkeria ekonomikoa, sexuala, psikologikoa, soziokulturala... Errealitate hori salatu nahi dugu eta Estatuari zein jendarte osoari emakumeen aurkako edonolako indarkeria motaren desagerpena eskatzen diogu.

- **Emakumeen kalitatezko esku hartze aktiboa.**- Egun indarrean dauden sistemak emakumei erabakiak hartzeko guneetan parte ez hartzeko dimentsio patriarkala duten demokrazia ereduetan oinarritzen dira eta, horrexegatik, ez ditu onartzen interbentzio sozialean eta negoziazio politikoan partaide diren subjektu modura. Hau guztia kontuan izanik, ezinbestekoa da emakumeak baztertzeko dituen boterearen kontzeptzioa eta herritartasunarena eraldatuko dituen proiektu politikoa artikulatzea. Parekide-tasunari begira neurriak hartzea beharrezkoa da, baina ez da nahikoa gaur arte gizonak okupatu izan dituzten espazioetan emakumeen benetako parte hartzea bermatzeko.

- **Hezkuntza berdintasunean.**- Gure jendartean emakumeek zein gizonak izan behar dituzten betebeharrak ezberdinak, kliseak eta aurreiritziak haustea helburutzat duen hezkuntza parekidearen garapena premia gorria duen betebeharra da.

- **Zaintzen defentsa.**- Zaintze zerbitzuak ekonomia bihotzean daudela uste dugu eta, horrexegatik, zerbitzu horiek babestearen aldekoak gara. Bide beretik, **Atzeritarren Legearen aldekaren** aldeko apustua egiten dugu, besteak beste zaintze lanak bultzatzen dituelako, baina nagusiki berauek emakumeen eskuetan utziz eta oso baldintza ekonomiko kaxkarretan. Modu horretan emakumeen artean eskubideen mailakatzea indartzen du, batzuen alde eta besteen aurka. Ildo beretik, **emakumeen etxeko enplegua arautzen duen araudi baztertzailaren erreformaren aldekoak gara**, etxeko langileen benetako izaera aitortuz, paperik gabeko etorkin emakumeena barne, berauek ere soldata duina merezi dutelakoan baikaude, atsedeen eskubidea dagokielakoan eta baita segurtasun sozialearen babesa ere, beste edozein sektoretako langileek duten modu bereberean.

- **Estatu laikoaren defentsa.**- Estatu laikoak oinarri nagusi gisara giza eskubideen babesa dauka, eta, beraz, emakumei dagokien askatasunerako eskubidea, oinarrizko giza eskubide gisara. Alde horretatik, instituzio publikoen eta erlijio ezberdinen arteko bereizketa osoa aldarrikatzen dugu eta ez dugu inolako fedearen esku hartzerik onartzen emakumezkoen dagokien eskubideen esparruan zein hauen erabakitze eskubidean.

G.- Hezkuntza

Euskal herritarrek kalitatezko hezkuntza eta prestakuntza etengabea jasotzeko eskubidea dute, beti ere beren nahi eta gaitasunen arabera. Horretarako, ezinbestekoa da euskal curriculumean oinarrituriko berezko hezkuntza sistema osatzea. Eredu publikoa, herritarra, parekidea eta parte hartzailea, bere baitan 0 urtetik 18 urtera bitarteko hezkuntza prozesua jasoz, lanbide heziketa eta unibertsitate sistema barne dituelarik. Hezkuntza publikoaren aldeko apustua egiterakoan, botere publikoek

euskal jendarte osoari dagozkion hezkuntza eskubideak ezinbestean bermatu behar dituztela pentsatzen dugu. Hau da, euskal hezkuntza publikoa herritar izaerarekin lotzen dugu, besteak beste, komunitateari atxikita, hezkuntzan ere demokrazia parte hartzailea garatu nahi baitugu. Gauzak horrela, euskal sistema publikoa, diseinuan, antolaketan, planifikazioan, kudeaketan eta garapenean, botere publikoaren eta hezkuntza komunitatearen arteko elkarlanaz garatu behar dela pentsatzen dugu.

H.- Gazteria

Gazteak Euskal Herriko oraina eta etorkizuna izanik, aldaketa politiko eta sozialaren motorra izan behar dute. Beraz, Akordio hau izenpetu dugun erakundeok esparru desberdinetan euskal gazteriak bizi duen salbuespen egoera aldatzeko neurriak hartu eta sustatuko ditugu.

Urratuak eta ukatuak izan diren eskubide zibil eta politikoen aurrean, euskal gazteria jendarteko talde zigortuena izan da, beraz ezinbestekoa eta atzeraezina da hauen oinarritzko eskubideen itzultzea:

- Berezko nortasuna duen subjektu politiko bezala bizitza publikoan parte hartzeko eskubidea, kriminalizaziorik eta jazarpenik sufritu gabe.

- Baldintza berdinetan antolatzeko eskubidea, antolakuntza ereduak aukeratzeko askatasun osoa.

• Gazteriaren ahotsa eta hitza errespetatu aldaketa politikorako eta sozialerako hartzen diren akordio guztietan. Gazteen hitza eta erabakiak esparru desberdinetako eguneroko ekintza politikoan errespetatzeko konpromisoa hartzen dugu, **taldean eragina duten esparru desberdinetan gazte politiken ezarketa egokia bermatuz**. Era berean, gazteriak bizi duen ezegonkortasun estrukturalari aukera erreala proposatzeko ahalmena eta beharra du, emakume

gazteen kasuan ezegonkortasun hau larria dela aintzat hartuz.

Ahal diren kasu gehienetan, emantzipazio eta etxebizitza duin bat eskuratzeko ezintasunari, lan baldintzen urritze totalari, hezkuntza publikoko koste altua edota honen pribatizazioari, ikasketak euskara hutsean osatzeko ezintasunari zein euskal curriculumaren ezinezko aplikazioari, lehentasuna duten arazoak izanik besteak beste, taldean adostutako erantzunak eman behar dizkiegu.

Maila berean, **aisiaren eta kultur politiken** merkantilizazioaren aurrean, parte hartzaileak eta herrikoiak diren jarduerak bultzatzea beharrezkoa da, kontsumorako soilik zuzenduta dauden eskaintzak gaindituz.

Hurrenez hurren, **auto-kudeaketa** bere esparru eta adierazpen guztietan defenditzen dugu, euskal gazteriak aukeratutako berezko antolaketa ereduak delarik. Era berean, **leku libreak** sustatzeko eta defenditzeko konpromisoa hartzen dugu, gazteriak garatzeko eta bere jarduerak era guztiz autonomoan eramateko, gazteen arteko harremanak sustatzeaz gain, kontzientzia kritikoan, jarrera erreboltari eta balore eraldatzaileetan oinarritutako bizipenen elkartrukatzea, aberastasun kulturala, sorkuntza eta heziketa indartuko dituztenak.

Eta azkenik Euskal Herriko gazteen erabakiaren baitan iritzi eta ideien desberdinei esparru bat eskainiko lieken marko komun baten antolatzearen alde egongo gara, behar diren baliabideak eta laguntzak eskainiz, gaur egun dauden zailtasun administratiboaren banaketa praktikan gaindituz.

I.- Internazionalismoa

Aitortzen dugu Euskal Herriaren etorkizuna munduko sektore herritarren etorkizunarekin

lotuta dagoela eta, horrexegatik, internazionalistatzat jotzen dugu geure burua. Horrek esan nahi du nazioarte mailako elkartasun ekimen eraginkorrek garatzeko konpromisoa hartzen dugula, ez puntualki egiten diren ekintzatan soilik parte hartuz eta, beraz, mundu mailako esparru alternatiboak sortzeko eta artikulatzeko lan egingo dugula, Europatik hasiz eta gainerrako nazioarteko eremuetara zabalduz.

Aldaketa sistemiko bat eragiteko borrokaren dimentsio ezberdinak bereiztea ezinezkoa den bezalaxe, ezinbestekoa da mugimendu, erakunde eta herri ezberdinen arteko ekimenen arteko uztarketa egitea, baldin eta finkaturiko helburuak eskuratu nahi baditugu behintzat. Gauzak horrela, ezinezkoa da maila lokala, nazionala eta globala bereiztea eta, horrexegatik hain zuzen, guztiak lan agenda politiko bakarrean uztartu behar dira.

Egunero ikusten ari gara nazioarte esparruan hartzen ari diren gero eta erabaki gehiagok nola eragiten diguten geure eguneroko bizitzan eta, horregatik, hain zuzen, ezinbestekoa da erantzun globalak artikulatzea logika antidemokratikoak zuzentzen dituen erabaki horien aurrean. Modu horretan, estrategikoak bihurtzen dira lanabes horri eskainitako indarrak, bai Europaren esparruan bai Hegoaldean txiroturik izan diren herriekiko aliantzetan ere.

Pertsona eta herri guztien etorkizuna egungo garapen ereduaren aurrean alternatiba bidegarria sortzeko gaitasunaren baitan dago. Horrek bihurtzen ditu internazionalismoa eta elkartasuna ezinbesteko Euskal Herrian sortu nahi dugun eraldaketan.

Hori guztia kontuan izanik, ondorengo konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Modu estrategikoan Europako mugimendu politikoekin ditugun harremanak indartzea.

- Sare globaletan dugun esku hartzea eta aliantzak indartzea.

- Elkartasun internazionalista sendotzea.

- Elkartasuna bereziki indartzea estaturik gabeko nazioekin.

J.- Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka

Globalizazio neoliberalak markatutako gaur egungo zikloak herrialde garatuak deitutakoen eta ustez garapen-bidean dauden herrialdeen arteko haustura handitu du, baina Europako eta Euskal Herriko jendartearen barneko desberdintasunak ere areagotu ditu. Logika neoliberalak ongizate estatuan murrizketa etengabeak egiteko agintzen du, gaur egun, tamalez, PPren gobernuaren jokabidearekin egiaztatzen ari garen bezala, eta Mendebaldeko ekonomien atzeraldiak langabezia eta prekaritatea areagotu ditu. Testuinguru horretan, oso nabaria da etorkinak egoeraren errudun gisa aurkezteko saiakera: krisi ekonomikoa handitzen dutela eta eragin kaltegarria dutela leporatzen diete. Horrek aurreiritzi faltsu eta funsgabeak indartzen ditu herritarren artean, eta jarrera arrazista eta xenofoboak azaleratzeko baldintzak sortzen ditu.

Hala, ekonomia ondo samar zegoen garaian, gehiengoaren diskurtsoa etorkinei buruzko ikuspegi utilitaristara lerratzen den. Gaur egun, ordea, dagoen enplegu apurra lortzeko eta Euskal Herrian bizi diren pertsona guztientzat urriak diren prestazio sozialak jasotzeko lehian jende askok aurkaritzat hartzen ditu etorkinak. Gainera, gero eta indar handiagoa hartzen ari dira immigrazio selektiboaren aldeko diskurtsoak, enplegurik ez duten etorkinak kanporatzearen aldekoak eta migrazioaren fenomenoaren interesatu eta faltsuan herritarren segurtasunik ezarekin eta delinkuentziarekin lotzen dutenak.

Beraz, zoritxarrez, arrazakeriaren fenomenoak indarrean dago oraindik. Izan ere, gizakiak haien ondare genetikoaren arabera hierarkizatutako taldeetan banatzeko joera gaingaituta dagoela dirudien arren, gaur egun kultur ondarea erabiltzen da talde jakin bat jendartean onartzeko edo baztertzeko irizpide bereizgarri gisa. Hau da, giza taldeen arteko desberdintasuna kultur terminoetan interpretatzen da, eta askotan nahita puzten den desberdintasun hori lurralde berean bizi diren pertsonen arteko eskubide eta betebeharrak desberdintasunerako aitzakia gisa erabiltzen da.

Akordio hau izenpetu dugunon ustez, ezinbestekoa da herritartasun unibertsalaren kontzeptu inklusiboaren defentsa aktiboa egitea. Kontzeptu horren arabera, pertsona guztiek berez dituzte eskubideak eta erantzukizunak, gizakiak direlako. Horren ondorioz, ezin zaie inolako eskubiderik kendu jatorriagatik, arrazagatik, sexuagatik, etniagatik edo nazionalitateagatik, eta guztion ardura da pertsona guztien eskubide guztiak bermatzea.

Halaber, premisa hori onartzeak eragina du euskal nortasunaren eta kulturaren ikuskeran: euskaltasuna ez da esentzia aldaezin eta iragazgaitza, baizik eta arbasoengandik jasotako

eta eraikitze-prozesu kolektibo etengabeak dagoen ondasun propioa, barnean heterogeneoa eta guztion artean sortua. Euskal kulturak bultzada politikoa behar du, gehiengoaren borondate demokratikoaren bidez kudeatu behar da eta euskara du oinarri nagusi. Hala, sustatu eta hedatu behar den ondare bat eraikitzen lagundu nahi dugu, garena oinarriztat hartuz baina aldakorra den eta barneratzailea izan behar den errealitate hori onartuz. Euskal kulturaren adierazpenen pluraltasuna ez da konfrontaziorako elementua izan behar, guztion aberasgarria baizik.

AKORDIOAREN JARRAIPENA

Akordio hau izenpetu dugun lau erakundeok bertan azaltzen diren edukiak babesteko, bultzatzeko eta garatzeko konpromisoa hartzen dugu –lehentasun politiko alboraezina izango duen konpromisoa da–, nahiz eta gure arteko autonomia organizatiboa, estrukturala eta identitarioa mantendu. Horrexegatik, *Akordioaren jarraipenerako egitura iraunkorra* sortuko dugu eta lehentasuna emango diegu elkarlanean, edukietan eta formatan, adostu eta garatzeko aukera ematen duten ekimen guztiei.



